

## **EUDELEK ABENDUAREN 12AN ETA 13AN BRUSELAN BILDUKO DEN EUROPAKO UDAL ETA ESKUALDEEN KONTSEILUAN HARTUKO DU PARTE**

**Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluko Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bileran, kide diren 36 herrialdeetako 49 udal-elkarte bilduko dira, tokiko eta eskualdeko botereek ‘Europa 2020 Estrategia’ delakoan duten eragina aztertzeko.**

**Europako Batzordearen egoitzan izango da bilera, eta José Manuel Barroso izango da bilerako buru. Horrenbestez, amaiera emango zaio Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak 60. urteurrena ospatzeko 2011n antolatu dituen ekitaldien agendari.**

**Europako gobernantzako eredia, krisialdi ekonomikoa eta kohesioko politikak eztabaidatuko dituzte Europa osoko toki eta eskualdeetako buruzagiek.**

Bilbon, 2011ko abenduaren 9an. EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteak, Europako tokiko buruzagi nagusien ondoan, Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluaren Zuzendaritza Batzordeak abenduaren 12an eta 13an Bruselan egingo duen bileran hartuko du parte.

Bileran, sakon aztertu nahi da Europar Batasunak datorren hamarkadan hazkundera izateko duen strategiari begira –Europa 2020 Estrategia izenekoari begira– tokiko botereek egin dezaketen ekarpena. Biler horrekin, Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak amaiera emango dio urteurrena ospatzeko 2011. urtean egin dituen ekitaldiei, aurretik 60 urte bete baitira Europako organo hori sortu zenetik (1951, Geneva, Suitza).

Zuzendaritza Batzordeak kide guztiak bilduko ditu: 36 herrialdeetako 49 udal-elkarte guztira. Bileran, datorren urteari begira Europako politikak dituen berehalako erronkak aztertuko dira, eta tokiko eta eskualdeetako botereek Europa 2020 Estrategiari begira egin dezaketen ekarpena ere landuko da.

EUDELen ordezkari izan Ibone Bengoetxea elkarteburua joango da, eta, hala, Europako beste hiri batzuetako alkateekin bilduko da Bruselan, esate baterako, Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluko burua eta Alemaniako Stuttgart hiriko alkatea den Wolfgang Schusterrekin.

Euskadiko Udalen Elkarteak eraginkortasunez hartzen du parte Europako organo horretan; izan ere, Europako **tokiko eta eskualdeetako 100.000 erakundek** dute ordezkari izateko bertan. Europako eskualdeetako organo nagusietako buruzagiak ere bilerara joango dira, esate baterako, Europako Eskualdeen Batzarreko, Eurocitieseko eta Europako Kontseiluaren Tokiko eta Eskualdeetako Botereen Biltzarreko buruzagiak.

Abenduaren 12an (astelehena), Europako Batzordearen egoitzan egingo da bilera, eta **José Manuel Barroso** izango da buru. Abenduaren 13an (asteartea), Europar Batasuneko Kanpo Arazoetako Ministerioaren egoitzan izango da bilera, hau da, Egmont jauregian.

## Europa 2020 Estrategiaren azterketa

Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluaren bilera hau guneko egokia izan daiteke tokiko buruzagiek “Europa 2020 Estrategia” delakoari buruz eztabaidatu eta ideiak truka ditzaten. Europan gobernatzeko eredu berria diseinatzea izango da eztabaidaren ardatza, zehazki, ordezkaritza-maila zabalagoa eta demokratikoagoa izango den eta oraingo eta etorkizuneko egoerari aurre egiteko prest egongo den eredu diseinatzea. Ildo horretan, krisi ekonomikoaren eta kohesioko politiken azterketa izango da gehien nabarmenduko den gaietako bat.



‘**Europa 2020**’ datorren hamarkadari begira Europar Batasunak prestatu duen hazkuntzako estrategia da, eta, haren bidez, ekonomia arrazoizkoa, iraunkorra eta integratzailea ezarri nahi da. Hiru lehentasun horiek izanda, Europar Batasuneko gobernuak laguntza eman nahi du, Batasunak eta kide diren estatuek laneko, emankortasuneko, eta gizarte-kohesioko maila handiak lor ditzaten.

Zehazki, Europar Batasunak **asmo handiko bost helburu** finkatu ditu 2020. urterako, lan, berrikuntza, hezkuntza, gizarteratze eta klima/energiaren arloetan. Kide den estatu bakoitzak bere helburuak ezarri ditu arlo horietan. Europar Batasunaren eta kide diren estatuen neurri zehatzak daude strategiaren oinarrian.

## Udaleko Europa 60 urtez

“Elkartuta gobernatzea” da Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak antolatu duen bileraren egitarauaren izenburua. Horren bidez, tokiko eta eskualdeetako botereek Europan egin dezaketen ekarpena balioetsi nahi da, herritarrengandik hurbilago baitaude, eta kohesioa lortzeko politikak bultzatu ahal baitituzte herrialde bakoitzean.



1951n Europako udalen lehen elkarteak sortu zen Suitzako Geneva hirian: Europako Udalen Kontseilua. Handik hogeita hamar urtera, eskualdeak ere batu ziren, eta, horrenbestez, 1984an oraingo **Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua** sortu zen. Hortik aurrera, kontseilua lanean aritu da, tokiko demokrazia lortzeko eta demokrazia Europan eraikuntzarako lagungarria izateko.

Kontseiluaren helburu nagusia da tokiko eta eskualdeetako agintarien ordezkaria izatea Europan, eta agintari horien solaskide baimendua izatea Europako instituzioen edo Europako Kontseiluaren aurrean. Bestalde, Tokiko Hiri eta Gobernu Batuen mundu-mailako antolakuntzako Europako Atala da kontseilua.

Azken 60 urteetako ibilbidean, Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak lorpen handiak erdietsi ditu, adibidez, udalerrien arteko senidetzeak, tokiko bizitzan Gizon eta Emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Europako Gutuna, eta Europako Tokiko Agintarien Garapenerako Plataforma (PLATFORMA). Bestalde, zeregin garrantzitsua bete du energia garbiak bultzatzeko eta isurpenak gutxitzeko xedez egindako **Alkateen Itunaren** sorreran.

## **EUROPAKO UDAL ETA ESKUALDEEN KONTSEILUA**

**“Elkartuta gobernatzea. Bat eginik, Europa sendoagoa eraikitzeko”**

**BRUSELA, 2011ko ABENDUAREN 12a eta 13a**

**Tokiak: Europako Batzordea eta Europar Batasunaren Kanpo Arazoetako Ministerioa**

Argibide gehiago: <http://www.ccre.org/>